

Agurraren lezioa (Ruper Ordorika)

Jonek taxi bat hartu du
Geltokiaren bidean
Ikasi nahiean dabil
Agurraren lezioa
Agurraren lezioa

Bere alde batek baietz dio
Ezetza berriz besteak
Ez da aise konprenitzen
Agurraren lezioa

Urrezko hitz eder hoiek
Zu eta ni, betiko, hoiek denak
Ez ditu orain aurkitzen
Agurraren lezioan
Agurraren lezioan

Agurraren lezio hori ikasteko
Ahazten jakin behar
Lezio hori ez dago ikasterik
(Hala esaten dizuet nik)

Nork du ahazten ikasiko?
Nork du ahazten ikasiko?
Bagoi gehiegizko tren
Gauean barrena
Ahazteko esango nioke
Ez pentsatzeko iraganaz
Ez dela xamur ulertzen
Agurraren lezioa
Agurraren lezioa.

ALBERT EINSTEINEN MIHIA

Logelako posterretik
mihia ateratzen duen
Albert Einstein mutu horrek
zer esan nahi ote du?

Begi urdin, ile luze,
ez da orraztu sekula.
Mihi horrek orain nori
egiten dio burla?

Hogeigarren mendeari?
Mundu nahasi honi?
Kalean dabilenari?
Eta zergatik neuri?

“Ama Euskal-Herriaz naiz naigabetua”

Xalbadorren hitzak, Anje Dualdek abesten du

Delikatua baitut egungo sujeta,
hasi aintzin egin dat zonbait gogoeta,
gure arteko asko ele entzun eta,
euskaldun agertzea ez baita jasteta.

Ama Euskal-Herriaz naiz naigabetua,
uzterat doalakotz betikotz mundua,
bere seme alabez abandonatua;
nork barka dezaguke gure bekatua?

Badakir askoz ere nukela hobe
neheri ez agertu ene dolarea;
odolaren mintzoa eduki gordea
nahiko nuke, bainan ezin dat ordea.
Ama Euskal-Herriaz...

Bata dela eskuina, bertzea ezkerra,
euskaldunen artean dugu herra,
ahantziz, Ama, zure maitasun ederra;
horra zure seme hok dautzugun eskerra.
Ama Euskal-Herriaz...

Baztertu dugulakotz zure maitasuna,
desegin da betiko gure batasuna;
gu baitan aditzen da gudu oihartzuna,
hau da zuri bizia hekendu dautzuna.
Ama Euskal-Herriaz...

Lehen sartu zitzaun ezpata zorrotza
zure etxe nagusi jartzean arrotza;
halere etzitzauzun gelditu bihotza;
etxekoen eskutik duzu heriotza.
Ama Euskal-Herriaz...

Hil hobi huntan noizbat norbait badabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzunen du deiadar bipila:
hernen dago ama bat bere haurrek hila!
Ama Euskal-Herriaz...

Amaiera (Petti)

Amaiera ailegatu dela pentsatu al duzu inoiz?
zerbaiten hasiera izan leike hori.
Nola azaldu ulertezina, nola ahantzitakoa azaldu?
saiaztzeari uzteko momentua ailegatu ote da?
Amaiera ailegatu dela pentsatu al duzu inoiz?
zerbaiten hasiera izan leike hori.
Dena galduta zegoela uste izan duzunean
Zortearen gurpilak jira eman eta zure alde jartzen da.
Hainbat jende minduta, hamaika akats eginak,
hainbat zauri lehor bezain sakonak.
Ikasitakoa egia bihurtzeko desioa,
praktikan jartzeko, ezinezkoa ez dela, argi edukita.

Arraozi bat eskatzen zuen (Karlos Linazasoro)



ARRAZOI BAT ESKATZEN ZUEN

Huntz gorriz estalitako horma baten parean zeuden Kain eta Abel, Paradisutik oso hurbil. Kainek, astoaren barailezurra jasorik, esan zuen:

–Emadazu arrazoi bat hil ez zaitzadan.

–Zure anaia naiz.

–Eta ni zurea, Beste bat!

–Aita hil egingo litzateke tristuraz eta lotsaz.

–Aitak gorroto nau. Beste bat!

–Jainkoak sute eternora kondenatuko zaitu.

–Jainkoak aspaldian abandonatu gintuen. Beste bat!

Abelek anaiari begiratu eta, suminez beterik, esan zion:

–Ludia zapaltzen duen putasemerik doilorrena zara, anaia!

Kainek sorbaldatik heldu zion anaiari eta, begiak mal-koz beterik, trago bat hartzera gonbidatu zuen hurbil xamar zegoen putetxe batera.

AULKI HUTSA Koldo Izagirre , 2006

Ez nion jaramonik egiten leihoan jotzen zuen paisaiari
nahikoa lan neukan irakurketa eten gabe jarraitzen
badakizu zeinen dibertigarriak diren gure trenak
ez zitzaizkidan asko ardura sanjose loreak eta mimosak
edo atzekoen solasa eta aitzinean neukan aulki hutsa

kaixo esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
jaso nuen burua liburutik eta liburua burutik joan zitzaidan
kendu nizkien begiak hitzei eta bekoz beko neukan gazteari nizkion eman
baina neskak ez zidan behatzen liburu bat aterea zuen
eta hari ere ez zitzaizkion ardura ez gure mendiak ez ni

laster gure alaba zu bezalakoa izanen da pentsatu nuen
neska polita zen eta begietan bizkorraren distira zeukan
nik begiak ikusten ez nizkion arren banekien bazekiela
begiekin barre egiten gure alabak egiten dakien bezala
laster gure alaba zu bezalakoa izanen da pentsatu nuen

itxi zuen liburua aharrausi egin zuen altxa egin zen
adio esan zidan edo hala esan zidala idazten dut orain
Zumaia zioen geltoki batean jaitsi zen ziur nago
badagoela herri bat Zumaia izenekoa nonbait
eta perfekzio guztiak eman nizkion neska bat munduan

neska munduan ezkutatu zen eta trenak aurrera jo zuen
ez dakit zergatik gelditu nintzen aitzineko aulki hutsari beha
laster gure alaba gazte hura izanen zela pentsatuz
munduan beti egonen da maite duguna oroitaraziko digun zerbait
garamatzan trena adibidez aulki huts batekin gure aitzinean

Autodefinitua (Anari)

Zerua eder urratzen zuten abioiek arratsean
Jendez gainezka kaleak, kotxez gainezka errepideak
Munduak ebakuazio simulakro bat egiten duen unean
Norbaitek galdetu zuen non litzatekeen larrialde-irteera
Ehundaka txori erori ziren zerutik munduaren ertz batean
Ehundaka arrain hilik urazaleratu beste aldean
Inork etzekien arrazoia azaltzen Berriaren arabera
Ordurako bihurtuak ginen geure antonimo eder bat.

Zaldi zuri batek aurrerratu gintuen errepidean
Kotxe batek atzean tiraka zeraman erremolkean
Milaka pertsona kalean autodeterminazioa eskatzen
Zenbat gauza kabitzen den zu bezalako hutsune batean
Beste asko korrika atera ziren etxetatik ihes betean
Bide gorritan barrena piztia joan eta etxe-animalia bueltan
Eta han-hemengo piszinetan jendea uretaratzen igerira
behinola izan ginen arrain abisalaren bila

Behera eta behera egiten zuen barne produktu gordinak
Aurreikuspenik txarrenak ere ez omen ziren horren larriak
denok erabaki genuen akatsarekin aurrera jarraitzea
eta horrelako egera batean beste edonork egingo lukeena egitea
Gauza handienek ez dute zaratarik egiten haustean
zenbat gauza kabitzen diren zu bezalako hutsune batean
Denok erabaki genuen akatsarekin aurrera jarraitzea
denok bihurtuak ginen ordurako geure antonimo eder bat

Azken dantza da hau (Manex Pagola)

Azken, dantza hau,
maitia, zurekin...
Nahi zinduzket
ereman nerekin...
Baina, gaurko xedia
ezin daike betia!...
Badakit, nik ere,
bihar dela joaitia!...
Bego pena hau!
Itzuliren naiz
Bai! Berriz Euskal Herrirat!
Bego urte hau!
Etorriko naiz
betikotz zure ondorat!.

..

Azken dantza hau,
ez da sekulako...
Zin egina dut,
zin egin betiko,
hemen, gure lurrean
bizi behar dutala!
Hori ez bada,
hil hotz jar nadila!...

AZKENA (Antonio Casado da Rocha)

Gure leihotik parkeko zuhaitzei
adi egon naiz denborak bare nazan

eta egiarekiko arazoa zein den
hostoak astinduz esan didate

topiko urratua baino ez dela
egia askotan baina egia halere

Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetara
zorrien Betiko Itzulera bezain

aurreikusgarri eta ziklikoa
dugu egia edo gure egia

adibidez esate baterako
gauza bakoitzak bere azkena duela

azken bala azken tangoa Parisen
azken botila ardo (nire kasuan

bi mila eta zazpiko Syrah bat
bi mila eta zortziko Priorat bat
bi mila eta bederatziko Riesling bat
bi mila eta hamarreko Gigondas bat
gogoratzen ez dudan beste ardo bat)

gaur erori den azken hosto hori
dramatismorik gabe utz dezagun

azkenaren zulo neurotikoan
ez gaitezen hondora ene lagunok

egiten dugun oro azken aldia

izango den ala ez den izango

galdetu gabe eta ahaztu gabe
ahalik eta modu dotoreenean
ona da denak azkena izatea
agur esateko parada hartzea

eta bizitzari itzultzea

arin

azken muxua

azken orrialdea.

(ACdR, Islandiera ikasten, 2014)

BIZITZEAREN ARTEA (Eduardo Galeano)

1986 an , medikuntzaren nobel saria Rita Levi Montalcinirentzat izan zen.

Garai zailetan, Mussoliniren diktadura garaian nerbio zuntzak ikertu zituen ezkutuan, inprobisatutako laborategi batean bere etxeko zokoren batean.

Urteak pasata , eta asko lan egin eta gero , bizitzaren misterioen detektibe honek, pertsonen zelulak biderkatzen dituen proteina aurkitu zuen eta nobel saria jaso zuen.

Laurogehi urte inguru zituen eta zera zioen:

“ Gorputza zimurtzen ari zait baina burmiuna ez. Pentsatzeko gai ez naizenen zera nahi dut bakarrik , lagundu nazazutela duintasunez hiltzen”

EPAIA

Aurretik sententzia idatzia duen epaiketara daraman bidean.

Gutxitan igo dituzu bulegoetarako eskailerak. Lantegikoek muga gorria dute jarria. Kasu berezietan sartu ohi zara guneez arrotzean. Hanka puntetan. Epel egoten dira bertan.

Zain. Ongi kalkulatu denboran zain. Urduritu zaitez. Datorrenaren hausnarrean, segunduak mende bihurtu daitez.

Lau azaldu dira ate atzetik. Gizonezkoak lauak. Ez datoz aurpegi serioz, baina formak mantentzen dituzte. Esertzera gonbidatu zaituzte.

Parez pare jarri den horrek, agintari supremoak, irakurri du sententzia, lanetik botatzen zaituzten sententzi irmoa, bere ezker-eskuinean eseritakoek, bere menpekoek, otzan, buruarekin gora-behera egiten duten bitartean.

Kuriosoa da, baina gehiago ez etortzeko agindu dizun horrek galdetu dizu lehenbizikoz ea zer iritzi duzun bere lantegiaz. Ez duzu erantzun, tiro bat jaso duen hildakoak erantzuten ez duen bezala.

Idazkariak finikitoa sinatzera gonbidatu zaitu. Zuzen betetzen du bere lana, zintzo betetzen ditu nagusien aginduak.

Ez zaituztela gehiago behar jakiteak eman dizu min. Erabili dituen aitzakia merkeek eman dizute min. Baina, sakonean, zure bizitzaren atal bat, noiz bukatu beste batek erabaki izanak, eman dizu min.

Baina, zenbat leiho irekitzen diren ate bat ixtean. Zenbat bide zabaldu bide zidorren amaieran. Zenbat pausu eman daitezkeen lau pareta haietatik kanpo.

Kanporako bultzada hark, argitu zuen zure mundurako begirada. Atzera ez begiratzen lagundu. Etorkizuna marrazten erraztu.

Zenbat onura dakarren, batzuetan, sakoneko minak.

Epilogo (Anari)

Ihes egiteko era guztien artean, gutako bakoitzak aukeratua du berea, eta zuk zeurea.
Oharkabe, erabaki duzu bizitzeran gorritik metro bat atzera bizitzea,
bidean seinaleak: zaindu segurtasun tarteak.
Badakizu, garrantzirik ez duten gauzen artean, garrantzi gehien dutenak, bihurtzen dituzula
garrantzizkoenak,

Eta trenak euri tanten kontra lehertzen hasten direnean,
Hutsuneak azpimarratuz
Zeure burua ikusten duzu kotxeen argien itzal bustian
Telefonoz deitzen duen
animalia izu eta hipokondriakoa

Eta tristuraren industriak zuretzat sortuak dituen
ansiolitiko eta kantuak, makrobiotika eta liburuak,
konstelazio eta terapiak, sare sozialak eta farmaziak,
zure melankoli burgesa bezatzen dutenak

dena duzu
dena duzu galtzeko
dena duzu galtzeko beldurra

ERREGE GAUA



Umeak milagarrenez entzun zuen bere gurasoen ahotik betiko txaplata: oso gaizki portatu zela eta erregeek ikatza besterik ez ziotela ekarriko. "Horrela ikasiko duzu hobeto portatzen!". Errege bezpera egunean, gurasoak kalera irten zirela aprobetxatuz, umeak gurinaz lerdatu zuen balkoiko barandatxoa, pinuaren azpian arratoientzako lau zepo ipini zituen estrategikoki, eta egongelako mahaitxoaren gainean zeuden hiru esne basokadei pozoi koilarakada bana bota zien. Ondoren, afaldu, gurasoei musu eman, eta goiztiar oheratu zen.

ERRUA

Umeak ginela ere gerra zaharreko jende derrotatua
ikusten genuen pasatzen
gabardinarekin euripean herri osoaren
errua kargatzen.

Irratian, telebistan, elizan, eskoletan
irabazleek agintzen zuten,
erruaren banatzaileek, errua, erru guztia
menperatuei atxikitzen.

Errudunetakoak ginela haintzat hartuz,
gauzak aldatzen ahalegindu ginen.
Bortxaren eta erruen kontrako betiko
erresistentzia jarraitu genuen.

Baina ez ginen gauza izan bestela antolatzeko
gizartea, ezta geure artea ere.
Erruak besteen lepoen ezartzea errazagoa da,
antzina girgiluak esklaboenean bezala.

Era askotako eskarmentuen ondoren, nik behintzat
ez dut zertaz harrotu ez zertaz damutu.
Dena dela, erru banatzaileok, ez didazue
zertan errua kendu.

Espero dut nire egunen bukaeran
diru asko ez edukitzea banketxean.
Ez nituzke nire oinordekoak
apurrengatik borrokan ikusi nahi.
Bizitza erabat aprobetxatu ez nuen seinale litzateke.
Lagunei ez niela behar adina lagundu.
Maiteei ez niela bizitza
erosoago eramaten erabat lagundu.
Opari garrantzitsu batzuk ez nituela egin.
Ez nuela behar adina xanpainik edan.
Niri dirua soberan geratzen bazait
zerbaitek huts egin zuen seinale.
Ez al nituen liburuak erosi, irakurri ezin ahala?
Ez al nituen puru habanoak erretzen, astean hirutan?
Nolatan irabazi nuen
xahutu nezakeen baino diru gehiago?
Nire lanak halako garrantzia izan al zuen
botereak diruarekin estali eta ilundu nahi izateraino?
Nolatan hartu nuen lo
diru hura merezi nuela pentsatzeraino?
Nire egunen bukaeran ehun mila euro banitu,
esate baterako, hilotzik miserableena nintzateke,
bizitzaren helburutzat
dirua pilatzea daukan gizarte bati
arrazoia emango niokeelako.

EZEREZA HUTSA BADA (Ione Gorostarzu)

Ezereza hutsa bada
hutsa arina bada
eta arina erraza
ez dut ezer izan nahi

Eta bukaera gelditzea bada
gelditzea atsedena
eta atsedena atsegina
bukatu egin nahi dut

Eta joatea agurtzea bada
agurtzea isiltzea
eta isiltzea lasaitzea
joan egin nahi dut

Eta heriotza loa bada
loa ametsa
eta ametsa askatasuna
hil egin nahi dut

Baina hiltzea uztea bada
uztea baztertzea
eta baztertzea mintzea
ez dut hil nahi

Eta joatea hastea bada
eta hastea saiatzea
saiatzea nekatzea
ez dut joan nahi

Eta bukatzea etsitzea bada
etsitzea galtzea
eta galtzea umiltzea
ez dut bukatu nahi

Eta ezereza gaua bada
eta gaua iluna
eta iluna beltza
zerbait izan nahi dut

Gillotina

Aterik gabeko ate segail, ategune huts. Goian, zintzilik, aho hilgarria.

Izen ugariko izana: Makina, Alarguna, Bizargilea. Luis erregea burugabetutakoan, Luisita jarri zioten. Eta behingoan bataiatua, betirako, Gillotina.

Alferrik aritu zen protestan Joseph Guillotin. Behin eta birritan eta milaka alditan adierazita izua erein eta jendetzak erakartzen zituen borrero eme hura ez zela bere alaba. Inork ere ez zien jaramonik egiten sendagile honen arrazoiei, heriotza zigorraren aurkari petoa izanik ere: zioena zioela, uste berean tinko zirauen jendeak, alegia, bera zela Parisko plazetako ikuskizun herrikoieneko lehen aktotesaren aitatxo.

Baita uste ere jendeak, eta egun ere halaxe uste, Guillotin gillotinaturik hil zela. Egiatan, oheko bakean egin zion ihes azken hatsak, burua soinari ongi baino hobeki itsatsita.

1977 arte aritu zen gillotina lanean, agente elektrikodun aldaki txit azkarrak etorkin arabiar bat exekutatu zuelarik Parisko espetxeko patioan.

Guztiok izan beharko genuke feminista

Chimamanda Ngozi Adichie nigeriarra

Askotan gogoratzen naiz nire lagun Okolomaz. Jarraitu dezatela bakean atsedean hartzen berak eta Sosolisoko hegazkin-istripu hartan hildako guztiek ere. Maite dugunok beti izango dugu gogoan. Arrazoi zuen orain dela hainbeste urte “feminista” deitu zidanean. Feminista naiz.

Duela hainbeste urte, hitza hiztegian bilatu nuenean, hauxe aurkitu nuen: “Feminista: sexuen arteko berdintasun sozial, politiko eta ekonomikoan sinesten duen pertsona”.

Entzun ditudan istorioak kontuan hartuta, gure birramona ere feminista zen. Senartzat nahi ez zuen gizonaren etxetik ihes egin, eta berak aukeratutako gizonarekin ezkondu zen. Emakume izateagatik lurrak eta aukerak kentzen ari zitzaizkiola sentitu zuenean, ez zuen onartu; protesta egin, eta egoera salatu zuen. Birramonak ez zuen “feminista” hitza ezagutzen, baina horrek ez du esan nahi ez zenik. Askoz ere jende gehiagok aldarrikatu beharko luke hitz hori. Ezagutzen dudak feministarik onena Kene neba da, gazte atsegin, erakargarri eta oso maskulinoa ere badena. Neuk ematen dudak definizioaren arabera, feminista da honako hau esaten duen edozein gizon edo emakume: “Bai, gaur egun genero-egoerarekin arazorik bada eta konpondu behar badira, gauzak hobetu egin behar ditugu”.

Eta guztion artean hobetu behar ditugu, gizonek zein emakumeok.

Harrapaketa Handia (Misuzu Kaneko)

Egunsentian, loriagarria egunsentia,
harrapaketa handia da!
Sardina harrapaketa handia!
Hondartzan, jaia dirudi
baina itsasoan egingo dituzte
hiletak
hildako milaka horientzat.

(Arantza Etxeberria-k itzulia)

Hey, That's No Way To Say Goodbye (Leonard Cohen)
Aitor Arana itzul. (Hotsizki, 1. zenbakian)

Goizean maite izan zintudan.
Gure musu sakon eta beroak.
Zure burua burkoaren gainean,
ametsezko ekaitz urreztatua bezala.
Bai, askok maite zuten elkar guk baino lehenago.
Badakit ez garela ezer berririk.
Hiritan eta basotan,
guk bezalaxe egin zuten farre.
Baina ez gaitzen gehaigo mintza
maitasunaz edota kaleez eta
askatu ezin ditugun gauzetaz.
Zure begiak gozoak dira goibel daudenean.
Adizu, hau ez da agur esateko era.

Hilzori (Angel Azkarraga)

Hemen ezer galaraztu gabe
beste mundura noa, haizak anaia
bizitza hontan, mundu zikin hontan
atxipetua izan naiz, jostailu bat

aldarri batekin deitzen nau heriotzak
gau erdi hontako bakardadean
orain ezin dut ezer galaraztu
abere bat bezala bizi izan naiz

bihar, bihar hil egingo naiz
lagundu nazu
bihar hil egingo naiz

nere hilzoriaren erdian
pentsatzen nago heriotzarekin
eta ikusten dut ehun dara hilak
ezkilaren doinu jarraituak

aldarri batekin deitzen nau heriotzak
gau erdi hontako bakardadean
orain ezin dut ezer galaraztu
abere bat bezala bizi izan naiz

bihar, bihar hil egingo naiz
lagundu nazu
bihar hil egingo naiz.

IHESEAN I

Ihes egiten duenak ez du agurtzen.

Ez du atzera begiratzeko.

Ez du betarik.

Ezin du.

Ezkutuan darama bere ihesaldia. Beldurrak isilean dantzan.
Oroitzapenak memorian iltzaturik. Agurtuko lituzkeen horiek
begi ninietan zintzilik.

Joan da.

Arrakala zabaldu du historian. Inoiz ez du berriro egoera hura
biziko. Bueltatzerako urteak joango dira. Edo mendeak agian.

Atzera ezinezko erabakia da.

Fini.

IHESEAN II

Lehengoak gara.

Erabakiek egoera ezberdinetara eramaten gaituzte. Baina, topo egin dugu iluntasunean. Agian ni nindoan, edo agian zu zentozen.

Itxura aldatua duzu. Bibote hori arrotza zait. Baita orrazkera ere.

Pertsianak erdi itxita mintzatu gara luze. Eta zure hitzak arrotzak zaizkit. Ez zait iruditzen zure ahotik datozenik. Asko urrundu gara epe motzean. Halere, zenbat irri suelto. Eta zenbat pisuzko malko.

Txuleta afaldu dugu. Eta txokolatea postrean. Gaurkoaren ispilu: gazitik adina gozotik. Bapo. Zitak merezi du. Guk merezi dugu. Azken afaria baita.

Biok dakigu azken agurra dela.

Bazoaz.

Bihartik aurrera ez dut jakingo zure berririk jakin nahiko dudana. Nekez izango baitira onak.

INKESTA

Egin behar dioten hil edo biziko ebakuntza baten ondoren kontu segurua izango da beti erabili dituen bi hizkuntzetatik, bat ahaztu egingo zaiola. Medikuak dilemma jarri dio:

–Hautatu zein hizkuntza galdu nahi duzun.

Hogeita lau ordu ditu erabakia hartzeko. Hizkuntzetako bat etxekoa du, familiarra, sentimenduena, bere jendearen historiarena, bere herriarena. Beste hizkuntza inposatua izan zitzaion, baina beretzat dauka, hegemonikoa da bera bizi den tokian, ate asko zabaltzen dizkio, berearekin iristen ez den tokietara eramaten du, azken finean berea da baita ere.

Ez zaio erabaki erraza, erantzuna emateko epea gainean du.

Paper bi hartu eta hizkuntza baten zein bestearen hautua egiteko alde onak eta txarrak apuntatzen ari dela, bihotzekoak jotzen du.

Kaixo, zaharra (Pello Zubiria)

Ikustekoak Parisko teilatuak
Suitzako tontor garai haiek
Oraindik begietan dauzkat
Kanadako itsas hegia bezala
Baina gehiegi berandutu naiz
Azken ihes honetan

Kaixo, zaharra
Egidazu ongi etorria berriz
Egia, urruti ibili naiz
Baina hori bukatu da
Etxean geratuko naiz
Zurekin jolasteko

Bixi, gure txakurra
Ergel bat ematen dut seguru
Jakin behar nuen
Ahantziko zenuela nire usaina
Laster etorriko naiz nire onera
Hamaika kontu daukat zuretzako
Nola egin nion ihes demonioari
Zeharkatuz infernuko karkabak

Kaixo, zaharra
Egidazu ongi etorria berriz
Egia, urruti ibili naiz
Baina hori bukatu da
Etxean geratuko naiz
Zurekin jolasteko

[James Taylorren "Hello, Old Friend" (1974) hernaniratuta]

Laugarren azalberritzea (Anari)

Sasiak erabat jana zinen ordurako,
Itzalak, zuhaitza aspaldi erauzi arren, han luze zirauelako.

Marea igotzen denean estutzen den hondartza horren moduan estutzen bizitza.
Eta hitz haien beste aldean, sumatu baño egiten etzenuen norbait.

Barkatzeko eskatzen zenion zeure buruari agian egin ere ez zenituen hainbat gauzengatik.
Eta ahazteko eskatzen zenion egin zenituen beste hainbatengatik.

Eta orduan zu. Beste zu.

Zu hitz haien bestaldean, sumatu baño egiten etzinena
Denborak erretako baso bat ginen barruan eta zure ertzean
arropak utzi nituenean lurrian, narraztiekin azala uzten duten eran
eta nahasi hartan ia beste dena, laugarren azalberritze batean
Eta narraztaka lurrian barna, ebatzi gabeko lurralde hartara
Eta han berriro, enegarren aldiz, lehen aldi bat lehenaldiari
ihes egiteko zuk nire barrutik eta nik neure barrutik
narraztiekin azala uzten duten eran, laugarren azalberritze batean

LINGUAE VASCONUM PRIMITIAE

Nik zita bat nuen
Bernart Etxeparerekin.
Barkatu,
laurehunda piko urtez
berandutu naiz.
Harrigarriena da
Bernart Etxeparek
itxaron egin nauela.

Euskal poesiaz
galdetu didanean
esan diot euskaldunek
(zeu salbuespena, beharbada)
ez dutela poesiarik leitzen,
etb ikusi eta
bidaia turistikoak egiten dituztela
tropikoetara.

Eta zer da etb?
Ba, horixe,
etb zer ote den
asmatzen
eta neskameak ekarritako
sagardoa edaten
geratu gara
Axularren zain.

Lletra a Dolors (Miquel Martí i Pol)

Em costa imaginar-te absent per sempre.
Tants de records de tu se m'acumulen
que ni deixen espai a la tristesa
i et visc intensament sense tenir-te.
No vull parlar-te amb veu melangiosa,
la teva mort no em crema les entranyes,
ni m'angoixa, ni em lleva el goig de viure;
em dol saber que no podrem partir-nos
mai més el pa, ni fer-nos companyia;
però d'aquest dolor en trec la força
per escriure aquests mots i recordar-te.
Més tenaçment que mai, m'esforço a créixer
sabent que tu creixes amb mi: projectes,
il·lusions, dissenys, prenen volada
per tu i amb tu, per molt distants que et siguin,
i amb tu i per tu somnio d'acomplir-los.
Te'm fas present en les petites coses
i és en elles que et penso i que t'evoco,
segur com mai que l'única esperança
de sobreviure és estimar amb prou força
per convertir tot el que fem en vida
i acréixer l'esperança i la bellesa.
Tu ja no hi ets i floriran les roses,
maduraran els blats i el vent tal volta
desvetllarà secretes melodies;
tu ja no hi ets i el temps ara em transcorre
entre el record de tu, que m'acompanyes,
i aquell esforç, que prou que coneixes,
de persistir quan res no ens és propici.
Des d'aquests mots molt tendrament et penso
mentre la tarda suaument declina.
Tots els colors proclamen vida nova
i jo la visc, i en tu se'm representa
sorprenentment vibrant i harmoniosa.
No tornaràs mai més, però perdures
en les coses i en mi de tal manera
que em costa imaginar-se absent per sempre.

EGUNAREN EGUNEROKOAK

Eguna lasai, gozo, ia lotsati sortu zen, baina lehen urratsak ematearekin, sehaskarik atera berria oraindik, mehatxu keinuak egin zituen.

Goizeko hamarretan, hegats ez mantso-mantso zihnoan abioia bota zuen, eta ez zion barruko inori gainbizitzen utzi.

Hamarrak eta laurdenetan, euri az eta uholdeez baliatuz, lokatzezko mendi erdi bat herrixka baten gainera erortzen utzi zuen.

Gero, halabeharria krudeltasunez antolatu zuen.

Suteak bizitu zituen hiru-lau basotan.

Paper ugari betearazi eta, bide batez, langabetuen betaurrekoak lurtundu zituen.

Egunak pobrezia eta zoritxar ugari banatu zuen munduko pobrentzat eta ondasun ugari eta suerte ez hain txarra munduko aberatsentzat.

Egunak, harnabietan puntuan, harnabi urteko neskatok bat bortxatu zuen gupidarik gabe.

Haur sortu berri politiei izen motz-motzak eman zizkien.

Egunak, bazkalondoa, gorpu odol ezartuak ehortzi gabe erakutsi zituen bide bazterreko zangetan. Jende askori eman zion arrazoi konkreturik gabeko negargura.

Egunak, arratsaldean zehar, nekazariak sorotetan ahitzeraino nekatu zituen.

Langile egarritu batzuei garagardoa zerbitu zien, beste batzuei berri egari gehiago.

Eta emaztegai itsusiak ohi bezain gaizki tratatu zituen.

Eta fiskal eta epaile asko zuzenbideetik apartatu zituen.

Eta adulterio ugari kometitu zuen, ohi bezala.

Poeta askoren zorozeria, larragoa egin zuen. Beste poeten ergelkeria, nabarmenagoa.

Futbol ekipo bati eman zion irabazia, 3-1, eta besteari derrota. Kiniela azartatu zutenei diru guti eman zien.

Egunak, labana bat eskuan, farmaziak atrakatu zituen narkotikoen bila.

Hiru-lau politiko saldukeria eta lapurreta orokorrera bultzatu zituen. Bultzada suabe batekin aski izan zen, egia esan, gero abiantzada berez hartu zuen.

Neska bat bota zuen, zubi gainetik ibai belzera, oskorriarentzat brioleta kolorea prestatzen ari zen artean.

Jende asko hil zuen oraindik, infartoz, minbiziz,

MIOPEAK, BIZIKLETAK ETA BESTE...

automobil istripuz, ordutan prestaturiko oskorri ede-
rrekin adio ez baizik eta bihar arte esaten zuen.
bitartean, eta astiro joan zen iluntzean, ohi bezala,
beste auzoari buelta bat ematera.

idonzapidi@gmail.com

MIRARIA (Eduardo Galeano)

1991ko gabon gau egunean Sobietar Batasuna hil zen eta bere askan errusiar kapitalismoa jaio zen .

Fede berriak miraria egin zuen : berarengatik argiztatuak, funtzionarioak enpresariak bihurtu ziren, Alderdi Komunistako buruzagiak erlijioa aldatu zuten eta aberats berri dizdiratsuak egin ziren, estaturi erremate ikurra jarri zioten eta bananaren prezioan erosi zuten eros zitekeen guztia bere herrian eta munduan .

Ezta futbol klubak ez ziren libratu.

Niregatik balitz (Pako Aristi)

Niregatik balitz, nire maite, maitale edo
noizbait konplize izan diren guztiekin larrua jotzen
jarraituko nuke bi edo hiru hilabetez behin.
Denak ziren ederrak, desiragarriak,
bestela ez nintzen haiekin oheratuko.
Eta maitagarriak:
oheratu naizen neska guztiak maite izan ditut nik,
gehiago edo gutxiago, une batean edo bestean,
aurretik, bitartean edo ondoren.
Maitasunak, niretzako, magma baten antza dauka,
inguratzen gaituen indar bat grinaz,
irribarrez eta algaraz osatua.
Baina nire maite, *maitale edo noizbait konplize*
izan zirenek maitasunarekin zerbait egin nahi zuten,
bizitzan gauzatzen joan beharreko egitasmo bihurtu edo,
eta hori niri nekagarria iruditzen zitzaidan.
Hesi batekin itxitako amets
bihurtu nahi zuten maitasuna.
Baina zein amets itxi liteke hesi batekin desegin gabe?

Non nengoen baneki (Anjel Lertxundi)

NON NENGOEN BANEKI

Besoa jaso nuen eta burua ukitu. Gero gorputza. Ez nuen, ordea, ezer sentitu: burua eta gorputza nireak ez balira bezala zen, baina ispiluko nire irudiak imintzioka ariko balitz bezalako keinutxo batzuk egin zituen. Atximur egin nion besoari. Minik ez. Ispiluko irudiak begiak itxi zituen, nire atximurren batek mina egin balio bezala. Zaplaztekoa eman nuen matrailean, muturreko bat eman nion ahoari, ukabilkada bat sudurrari. Minik ez. Ispiluko nire irudiak oinazezko gero eta keinu gehiago egiten zituen, zartatuta zeukan ezpainenetako bat, odola zerion sudurretik.

Eskua eraman nuen sudurrera. Odol-arrastorik ez.

Beldurtuta, argia itzali nuen. Halaxe egon nintzen, ilunpetan, denbora dezentez, gertatzen ari zitzaidanaren hausnar beldurtuan. Halako batean, argia piztera ausartu nintzen. Ispiluak ez zidan nire irudirik itzuli.

Kristala odolduta zegoen.

Parentesien arteak (Anari)

Gautzen doan heinean, dena biltzen da bere barnera.
Zutzen zaren unea, zuk baino ez dakizunerantz.
Inoiz inork ikus ez duen, parentesi arte horretan;
ezinezkoen inbentario zentzugabe hori berridazten hasten zara.

Eta inoiz inork zeharkatzen
ez duen muga eremu desertu eta absurdu horren
lerro nekatu eta ahitu hori zaintzen tematzen zara.

Paul

Musikariek kanta bakarra aukeratu behar dutenean modura, horrela sentitzen naiz. Buruan idatzi ditudan hamaika zirriborroen artean, zein aukeratu? Zeinentzat hitz egin?

Agur esaten idatzi beharko nuke, baina ezin. Oraindik gertuegi zaude, inguruan somatzen zaitut, ametsetan agurtzen nauzu... Miquel Martí i Pol poeta katalandarrak dioen modura, ez zara inoiz bueltako, baina gauzetan eta nire baitan horren present zaude, zaila egiten zaidala betiko joan zarela irudikatzea. Eta horretan ari naiz, ari gara, gertatu dena barneratu nahian.

Horrelakoetan hil berri den pertsonari buruz aritzea ohitura. Zutaz dudan lehenengo oroimena, Bilbon bizi zinenekoa, Dos de Mayon bizi zen hernaniar begi politdun hura. Gerora, zure iribarrea; iribarre majiko horretaz maitemindu bainintzen Goiz Argin gau hartan. Eta aurrerantzean zer esan, muxuak, zurekin bizitako abenturak, zugandik ikasitakoak -nire instruktore kuttuna izan zara-, eta, nola ez, zu itxoiten pasatutako ordu luzeak. Horretan ere famau!

Egunak joan, egunak etorri; bizitza aurrera eta pertsonen arteko harremanak aldakor. Eta horrela ere gure artekoa, gorabeheratsua, batzutan ederki, bestetan mutur luze, baina gehienetan hor, elkarrengandik ez oso urrun, une zailetan gertuago. Hemendik aurrera, norekin diskutituko? Zeinek esango dit, eta afaria posturan galdu ere, Bartzelona penintsularen hegoekialdean dagoela? Eta munduko pertsonarik kaxkagorrena naizela? Norekin Pirineotara joan? Galdera gehiegi idazki labur honentzako.

Hil egin zara, gu guztiok horren lekuko. Azken hilabete hauetan une gogorrak egon dira, baita ederrak ere. Aurrekoan zuk idatzitako gauzen artean zoriontsua izan zarela irakurri nuen, abenturaz eta mendiez betetako bizitza izan duzula eta horri heldu nahi diot.

Zure azken oparia, aste hauetako esperientzia. Elizatxoko hospitalitoan bizi izandakoak ez ditugu erraz ahaztuko. Bidailagun bikainak eta zure bizitzeko gogoak; makrobiotika eta fruta tropikalak; barreak eta negarrak.

Paul, adiorik ez, zugar gogoa.

Piromania (Anari)

Eguna heze esnatu zen, behe-laino batek biltzen dena
Hala ere eguzkiak zulatzen zuen erak
Beste egun sargori bat iragartzen zuen
Horrez gain arratsean hegoak gogor joko omen zuen...

Kotxean sartu eta jo zuen mendi aldera
Basoaren ertz banatan su ttiki bat piztera
Etxera bueltatu eta iluntzea heldu arte itxaron
Sirena hotsa entzutean lehiotik luze begira egon

Eta zuk ulertzen duzu, zeure burua ikusten duzu
Basoa maite duzun eran sua ere maite duzu
Denborak egin duen basoa, bere pizti, bere sasi,
Zuretzat erantzten dena eta zurekin jantzi.
Zuk hainbeste zaintzen duzuna, eder eta egi izan dadin...

Baina zuk ere nola basoa adina sua maite duzun...

POESIA HILDA DAGO BAINA EZ NAIZ NI IZAN

Nire hatz mamien markak aurkituko dituzue,
 beharbada, gorpuaren gainean,
ni badaezpada inguratu naiz, hilotza
 oraindik hil gabe zegoelakoan.

Eskuak gainean harrapatu nauzue, baina
 berpizten entseatu naizelako.
Ni heldu naizenerako ez zuen konorterik,
 azken hatsetan zegoen apika.

Egia da batzuetan ene oinetara etortzen zela
 jolasten. Nik ez dut poeta izan nahi.
Nork esan dizue ikusi ninduela? Ni hemendik
 paseatzen nenbilen.

Ez dakit nork hil duen, hurreratu naizenean
 jendez inguratuta zegoen, hilda.
Poeta omen direnetako poetaren batek
 itoko zuen akaso.

Zergatik hartzen nauzue preso? Ni ez naiz izan,
 eta ez zaizkit kartzelak gustatzen.
Zelan ehortziko duzue, gainera: poesia ez da
 gereziondo ataut horretan kabitzen!

Ekar itzazue egunkari batzuk gutxienez
 tapatzeko.
Lelo lirelo bai lelo, lelo zarai leroba,
 lelo lirelo bai lelo...

PRESO EGON DENAREN GOGOA

Preso egon denaren gogoa
kartzelara itzultzen da beti.
Kalean epaile, fiskal eta abokatuekin
gurutzatzen da
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino
gehiago begiratzen diote,
haren
pausoa sosegatua ez delako
edo sosegatuegia delako.
Haren bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago.

SEKRETUA

Gizon aberats bat zalgurdira igotzera zihöan unean, mutil gazte bat hurbildu zitzaion:

–E, aizu, ez zara hain aise libratuko, zure sekretua ezagutzen dut!

Gizon aberatsa gorritu egin zen; gero, zurbildu. Zer nahi zuen galdetu zion gazteari. Mutilak diru-kopuru bat bota zion. Hiru hilabetez behin pasatuko zela eskatutako diruaren bila, eta halaxe, gaztea aberatsaren etxera joaten hasi zen agindutako epetan.

Pasatu ziren urteak, gizon aberatsak ez zion uzten sekretuaren zerga ordaintzeari. Behin, ordea, gaztea aberatsaren jauretxera joan zen batean, “nagusia hiltzen ari da!”, abisatu zion morroiak.

Gaztea laster batean sartu zen hil-hurrenaren gelan. Aberatsari aurpegia argitu zitzaion:

–Gazte, hiltzera noak! Esadak zein den nire sekretua!

(OSCAR WILDEK bere lagunei kontatzen omen zien ipuina)

SEMEAREN ESKUA (Mari Luz Esteban)

Ama hil berritan
ohearen ertzean
ezerezari oratua
topatu nahi hiru urteko semeak

Zer duzu ama?
Zergatik zaude ilunpean?

Amama hil da -xuxurlatu diot-,
Eta non dago orain? - galdetu du-,
Inon ere ez -erantzun diot-,
Baina non? -errepikatu du-,
Gure gogoan -erantzun diot oraingoan-,
gure bihotzean,
hortxe biziko da hemendik aurrera
beste inon ez dago.

Sendagilez hil (Eduardo Galeano)

Sendagilez hil

Hemeretzigarren mendearen hasieran, hogeita hamar milioi izain bizidun baino gehiago erosten zuen Frantziak, urtero.

Mendeak eta mendeak baziren sendagileek gaixoei odola isurarazten zietela, izainez zein aiztoz, gorputza odol zikinaz libra zedin. Odol-ateratzea zen pneumonia, malenkonia, erreuma, apoplexia, hezur kaskatuak, kirio urduriak edo buruko minaren aurka erabili ohi zen sendabidea.

Eria ahuldu ohi zuen odol-ateratzeak. Onurarik ote zekarren, aztarrenik ere ez sekulan horretaz, baina oro sendabidetzat erabili izan zuen Zientziak bi mila eta bostehun urtez, hogeigarren mendea ederki abiatua zeneino.

Izurri guztiek batera baino txikizio handiagoa eragin zuen terapia hutsezin horrek.

—*Hil zen, baina sendaturik*—esan zitekeen.

Tximeleta bezala

Lore artean eguzkitan dabilen
tximeleta polita bezala zera zu,
gure aurretik pasatzen zeranean
harriturikan danok begira gaituzu.
Zure besoei hegoak erantsita
aidean ibiltzea lortuko bazenu,
lore tikieta dabiltzan tximeleta
danetan politena izango zera zu. (bis)

Bai politak dituzula koloreak
izakitik dituzu paregabeak
eguzkia ta ihintza bezala
hartzen zaituzte pozez loreak. (bis)

Joaten bazera hegoei eraginez
belardietan zehar basoan aurrera
herri osoak jarraituko dizugu
begian zoramena izango baitzera.
Mirari batek bihurtuko banindu
zu zabiltzan lekuko lorea izatera
egongo nintzateke beti gora begira
noiz jeitsiko zera zai lorean gainera. (bis)

Bai politak dituzula koloreak
izakitik dituzu paregabeak
eguzkia ta ihintza bezala
hartzen zaituzte pozez loreak. (bis)

Odola nobeto ibiliko zaiztu soinean.

...bizitza horrelakoa da.

...e mango duzu.

eztarria libre duzula.

urkatuaren balada.

–Castillejo de Cirueles izena duen herrixka batean, G.-ko probintzian...

–Ez da egia izango! G.-ko probintzian! Beraz, zortziehun bat kilometro eginak izango ditut...

–Inoiz lurrera atera gabe?

–Nola atera? Eta nazionalak?

Burua apurtxo bat gehiago atera zuen. Ez nintzen fio. Istorio hura ez zen batere sinesgarria, ez nion batere susmo onik hartzen. Sator-gizon bat zen, inondik ere.

–Lagunduko didazu hemendik ateratzen, jauna?

–Noski, Gurutz, nola ez dizut ba lagunduko...

Aitzurra hartu, eta kolpe bete-beteko batez burua bi zati egin nion.

ZEMIPHOBIA

Artzaina naiz. Ezin ditut satorrak ikusi. Gorroto ditut. Zenbat belaze ez ote zizkidaten hondatuko! Nire ezinikusiak ez du zerikusirik Platonen *Topos uranus* harekin, nire lagun batek baietz dioen arren. Hain ezjakinak ere ez gara! Eta hementxe nago bada, adi, aitzurra hartuta, ea behingoagatik aurtengo kabroi hau harrapatzen dudan. Egunak daramatzat zain, eta hara, hortxe dago. Muturra azaleratu duenerako konturatu naiz: gizon bat da. Itsua dela jabetu naiz segituan. Harriturik, galdetu diot:

- Nor zara zu?
- Hara, ahots bat... Azkenean!
- Nor zara zu? Nola duzu izena?
- Gurutz...
- Bakarrik zatoz?
- Ze urtetan bizi gara, jauna?
- 2015ean...
- Ez da egia izango!
- Barkatu?
- Ia lauorgeri urte pasa ditut lurpean!
- Hori ez da posible, gizona!
- Hogeita hamaseiaz geroztik...
- Gerra zibiletik, esan nahi didazu?
- Bai ba, gizona...
- Eta zer jan duzu hor azpian hain denbora luzean?
- Txitxareak, intsektuak, pinpilinpauxak... Baina, hau poza!
- Eta senideak?
- Denak fusilatu zituzten. Ni horma-armairuan ezkutatzen nintzen eta dena ikusi nuen... Eta, izan ere, non nago?